

[Eusk/Cast] Y vasca: un tren de mentiras

AHT GELDITU! ELKARLANA :: 24/06/2016

El TAV es un proyecto basado en la mentira, la improvisación y la chapuza. Debemos pararlo cuanto antes y exigir responsabilidades a quienes nos han metido en este pozo

[Euskara]

EUSKAL Y: GEZURRAK GEZURREN GAINETIK

Abiadura Handiko Trenak, beti aipatu izan dugun bezala, alor ugari ukitzen ditu eta kalte desberdin ugari eragiten ditu. Gaurkoan, aipatutako alor desberdinetaz ditugun berriekin batera, berriak ez diren beste hainbat puntu ditugu aipagai. Berri horiek Bergarako lotunearekin eta hiriburuekin doaz lotuak.

2015eko martxoan, Bergarako lotuneko hainbat zati esleitu ziren zeintzuek lizitazioko prezioetan aurreikusitakoaren % 50eko beherapena zuten.

Harrigarria egin zitzaion pertsona orori eta pasa den astean Gobernu zentralak orduango kontratua deuseztatzen duela kaleratu du. Honekin, azkenik aipatu zituzten amaiera datak inondik inora errealak ez direla ikusten da. Amaiera gainean dugula ikusarazi nahi izan digute geldiezina dela transmitituz. Orain gero eta gehiago ari da esaten 2022-2025 arte ez direla lanak bukatuko.

Hiriburuei dagokienean, hilabeteak badira Eusko Jaurlaritzako zein hiriburuetako politikariak Espainiako Gobernuarekin hiriburuetako lanez hizketan dabiltzala. Ez dute ezer argi helarazten baina hala ere, argi dago pastel banaketa nola burutu dabiltzala negoziatzen. Azkenik, Eusko Jaurlaritza zein Donostiako udalak, Donostiako tren geltokia bere gain hartzea proposatu diote Espainiako Gobernuari. Honen eraikuntzarako 115 milioi euro aurreikusten dituzte eta honek, beraien artean hitzartua dagoen kudeaketarako mandatua aldatzea eskatzen du. Baina noski, ez digute argi uzten Eusko Jaurlaritzak edo Espainiako Gobernuak ordainduko lukeen. Indefinizio berbera ari da gertatzen Bilbo eta Gasteizko sarbideekin ere. Esaterako, lurrazpitik egiten badute Bilboko sarrerak 314 milioi € eta Gasteizkoak 421 milioi € kostatuko luketeela aurreikusi dute. Nola da posible obrak hasi zirenetik hamar urte igaro ondoren oraindik ez jakitea hirietan nola eta nondik sartuko den? Badago hau baino inprobisazio handiagorik?

Hau jakinik, egia ez dutela helarazten dago ikusgai eta behin eta berriz errepikatzen duten gardentasuna gezur hutsa dela adierazten du.

Gainera, daukaten gardentasun eza ez da bi puntu hauetan bakarrik, baizik eta beste hainbat eta hainbat izan dira ikusgai egunerokotasunean AHTren historian. Esaterako:

2006ko apirilaren 24an amaitu ziren Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak Euskal Y-a finantzatzeko sinatu zuten hitzarmena eta bertan, "Euskal Y"-an 4.178 milioi euro inbertitzea adostu zuten, horietatik 1.642 milioi euro Gipuzkoako zatia egiteko aurreikusiak. Gaur egun, zifra hauek gogor egin dute gora.

Gipuzkoan zati batzuk gelditu dituzte eta ez dugu informazio argirik; Dakigun bakarra da hilero milioi erdi € kostatzen duela lanak geldituta izateagatik.

Gezurretan, inprobisazioetan eta lardaskerietan oinarritutako proiektu hau lehen bait lehen gelditu behar da eta putzu honetan sartu gaituztenei erantzukizunak eskatzeko garaia heldu da. Lanak gelditu gabe zenbat eta denbora gehiago pasatzen utzi, gero eta zailago izango da hondorik gabeko putzu honetatik onik ateratzea.

AHT GELDITU! ELKARLANA

[Castellano]

El tren de alta velocidad (TAV), como siempre hemos denunciado, causa severos daños en diferentes aspectos (económico, ambiental, territorial...), sin embargo hoy, mediante esta nota, queríamos denunciar la falta de información referida a las obras del TAV del nudo de Bergara y lo relativo a los accesos del TAV a las capitales vascas.

En marzo del pasado año, para sorpresa de la oposición al TAV, diferentes tramos del nudo de Bergara se **adjudicaron con rebajas del 50%** sobre el precio previsto. La pasada semana el gobierno central anunció la anulación de dichas adjudicaciones, constatando de esta manera que una vez más los plazos de ejecución del TAV no son en absoluto reales. Nos han hecho creer que el final de la obra es inminente, transmitiendo la idea de que el proyecto es imparable e irreversible y sin embargo oímos cada vez con más frecuencia que el final de las obras de la Y vasca no llegará hasta el 2022-2025.

En cuanto a los accesos del TAV a las capitales vascas, decir que tanto el gobierno vasco como los alcaldes llevan muchos meses de conversaciones. Queremos denunciar la falta de información sobre dichas conversaciones, puesto que es más que evidente que en este asunto ya están negociando el nuevo reparto del pastel. El gobierno vasco y el ayuntamiento de Donostia le han propuesto al gobierno español hacerse cargo de la estación de Donostia. Prevén 115 millones de € para su construcción, sin detallar quién va a asumir los costes de dicha operación. La misma indefinición se esta produciendo con los accesos del TAV a Bilbao y Gasteiz. En el caso de que las entradas se hiciesen soterradas el coste se elevaría a 421 millones de € en el caso de Gasteiz y 314 millones de € en el caso de Bilbao. ¿Cómo es posible que después de diez años del comienzo de las obras todavía no tengan claro cómo y por dónde van a ser los accesos a las capitales? ¿Puede haber una improvisación mayor?

Queda claro que en lo referente al TAV no nos dicen más que mentiras y que la pretendida transparencia de la que presumen no es sino pura falacia. Esta falta de transparencia no es de ahora sino que ya quedó de manifiesto en varias ocasiones. Ponemos un par de ejemplos:

- El 24 de abril de 2006 el ministerio de Fomento y el departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco firmaron el acuerdo de financiación de la Y vasca, acordando 4178 millones de € para su ejecución, de los cuales 1642 eran para el tramo guipuzcoano.

Hoy en día se está viendo que el gasto final se va a disparar muy por encima de estas cifras.

- En Guipuzcoa se han parado varios tramos en obras sin que sepamos exactamente qué está ocurriendo en los mismo. Lo que si tenemos claro es que este parón nos está costando a los ciudadanos medio millón de € al mes.

El TAV es un proyecto basado en la mentira, la improvisación y la chapuza. Debemos pararlo cuanto antes y exigir responsabilidades a quienes nos han metido en este pozo. Cuanto más tiempo pase sin parar las obras, más difícil nos será salir de este pozo sin fondo donde nos quieren ahogar.

AHT GELDITU! ELKARLANA

<https://eh.lahaine.org/y-vasca-un-tren-de>